



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Zeanuriko Udala

**Lurzoru publikoa erabiltzeko udal Ordenantza: erabilera orokorra,txoznak eta antzekoen kasu berezia eta udal lokalen erabilera.**

Udalbatzak, 2018ko urriaren 16an, osoko bilkuran hasierako onarpena eman eutson .hurrengoko ordenantzaren aldaketari: Lurzoru publikoa erabiltzeko Udal Ordenantza: erabilera orokorra,txoznak eta antzekoen kasu berezia eta udal lokalen erabilera.

Egondako alegazioak erabaki ondoren, Udalbatzak 2019ko martxoaren 7an, goian aipatutako ordenantzaren aldaketari behin betiko onarpena eman eutson.

Araudi osoa publikatzen da.

Zeanurin, 2019ko martxoaren 12an.—Alkatea, Eusebio Larrazabal Olabarri

**LURZORU PUBLIKOA ERABILTZEKO ORDENANTZA: ERABILERA OROKORRA, TXOSNAK ETA ANTZEKOEN KASU BEREZIA ETA UDAL LOKALEN ERABILERA****1. artikulua. — Xedea**

Araudi honen xedea lurzoru publikoaren erabilera modu orokorrean arautzea, herriko jai eta beste honelako ekintza edo jaialdi berezietan, profesionalak ez diren taberna ereduko txozna edo antzekoen instalazioa arautzea eta baita ere udal lokalak erabiltzeko irizpideak ezartzea da, guzti hau lurzoru publikoaren erabilera orekatua, begirunez egindakoa, plurala eta anitza egiteko.

**2. artikulua. — Lurzoru publikoaren erabilera**

Lurzoru publikoaren erabilera modu orokorrean udalean eskatu egin beharko da, arrazoia eta eskatzailea nor den (pertsona fisiko edo juridikoa) adieraziz, . Eskatzailea izango da ekintzaren ondorioz suertatuko kalte-galeren erantzulea.

**3. artikulua. — Txoznak***Baldintza orokorrak*

Txoznak jartzearen arrazoia herriko jaietan edo ekintza berezietan dagoen jendearen eskaera bereziei aurre egitea da, eta jaiak edo ekintza berezi horiek finantzatzea da.

3.1. Zeanuriko Udalak aurretiaz ezarritako lekuetan bakarrik jarriko dira honelako instalazioak.

Txoznak jartzeko instalazioak, pertsona eta ondasun segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak bete beharko dituzte, eta orokorrean, eta orokorrean bezeroei babesa bermatu eta hirugarrenei molestiak sortu barik. Kasu bakoitzeko eskagarriak diren araudiak beteko dira, egituren sendotasun baldintzei buruzkoak batez ere, suteen aurkako prebentzio eta babeste neurriak harturik eta garbitasun eta osasun baldintzak gorderik

3.2. Zeanuriko Udalak finkatuko du jarriko diren txozna edo txoznen kokalekua.

Kopuruari dagokionez, eta kontuan izanda ez dela nahi herriko ostalaritza kaltetzea, txozna bakarra jarriko da.

Ulertuko balitz, bigarren txozna bat be jarri behar dala jaietan, bigarren txozna honek be jaien finantziazioan lagundu beharko leuke 700,00 eurotan.

Bigarren txozna hau beste ekintza bereziren bat dala eta jarriko balitz, ekintza horren finantziazioan lagundu beharko leuke, 200,00/eguneko.

3.3. Instalazioaren hasiera eta bukaera Zeanuriko udalak ezarritako datetan bakarrik egin izango da, bukaeratik gehien jota 24 orduko epe baten material guztia bildu beharko da.

3.4. Leku irekian jarri behar den txoznak Zeanuriko Udalak ezarritako azalera okupatuko du, eta instalazioaren sendotasuna, higiena, garbitzeko erraztasuna ... bermatzeko material egokiaz eginda egongo da.

**4. artikulua. — Baldintza tekniko sanitarioak**

4.1. Instalazio horietan, tabernetan normalean saltzen diren edari eta janariak saldu daitezke, «Reglamentación Técnico Sanitaria de los comedores colectivos», III. titulua, «Condiciones de los establecimientos de temporada» izeneko 1983ko urriaren 13 eguneko 1983/2817 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, Araudi honetako lehen zenbakidun eranskinean ematen diren osasun eta higiena arauak beteko direlarik

4.2. 18 urtetik beherakoei alkoholodun edaririk eta tabakorik saltzea guztiz debekatuta geratzen da, azaroaren 11ko 1988/15 Legeak ezarritakoaren arabera.

18.urtetik beherakoak txosna barruan egotea eta lan egitea ere debekatuta geratzen da.

4.3. Edalontziak eta zerbitzurako honelako tresnak, baten bakarrik erabiltzekoak eta biodegradableak izango dira.



4.4. Hondakinak ondo itxitako poltsetan botako dira .  
Horretarako jarri diren lekuetatik kanpo ezin izango da ezer almazenu.

4.5. Lan egun bakoitzaren ostean txozna barrua garbitu eta desinfektatu beharko da, baita erabilitako tresna guztiak ere. Txoznaren ingurua ere garbitu beharko da udal zerbitzu sailarekin lankidetzan.

4.6. Musika instalazioa ezin izango da erabili, Udalak halan adierazten dauenean.

#### **5. artikulua.— *Merkataritza eta segurtasun baldintzak***

5.1. Janarien eta edarien salmenta prezioak, ondo ikusten den kartelean erakutsiko dira.

5.2. Txoznak izteko ordua nahitaez bete beharko da eta hurrengoa izango da; goizaldeko 4:00ak arte, egun bat izan ezik, goizaldeko 5:00ak arte zabalik egon ahal izango delarik.

Itxi baino ordu erdi lehenago itzali beharko da megafonía.

5.3. Instalazioa egin aurretik ,Ikuskizun publiko eta jolas-iharduerei buruzko azaroaren 10eko 1995/4 Legeak ezarritako diru kopurutik jeitsi ezin den frankiziarik gabeko erantzukizun zibil poliza bat izenpetu beharko dute txosnak jartzeko baimena duten talde edo erakundeek.

#### **6. artikulua.— *Baldintza sozialak***

6.1. Txosnen iharduera antolatutako jai egitarauaren menpe egongo da.

#### **7. artikulua.— *Eskariak***

7.1. Irabazteko asmorik gabe diharduten Zeanuriko legez sortutako elkarte edo erakundeak eska dezake honelako instalazioak jartzea.

Ez dira alderdi politikoen izenean eskatzen diren txosnak eskariak tramitatuko, baldin eta ekintza alderdi politiko batek ez badau antolatzen.

Era berean, goian aipatutako kasuan ez bada, txoznaren erabilera politikorik ez da eragingo (propaganda, kartelak...).

7.2. Eskariak, Zeanuriko udaleko Erregistroan aurkeztu behar dira, txoznak jarri baino hilabete bat lehenago.

Eskariagaz batera eman nahi den zerbitzua eta instalazioaren krokisa aurkeztuko dira.

#### **8. artikulua.— *Aurkeztu beharreko agiriak***

8.1. Udalean 300 eurotako fiantza jarri izanaren ziurtagiria.

8.2. Txosnak segurtasun, sendotasun eta garbitasun beharrezko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen dauen ziurtagiria.

8.3. Industriako Lurralde Ordezkaritzak luzatutako instalazio elektrikoaren boletina.

8.4. Argindarrera lotzeko baimena.

8.5. Suteen kontrako babesa: jarritako itzalgailu mota eta zenbakia zehaztea.

8.6. Frankiziarik gabeko Erantzukizun zibileko poliza.

8.7. Pertsona erantzulearen identifikazioa (izena, NAN eta helbidea), Ordenantza honetan adierazten direnak betetzen direla ziurtatzeko, nahiz pertsona fisiko baten izenean egin eskaria, nahiz elkarte batenean egin.

Pertsona hori instalazioa jarrita dagoen epean, aurkitzeko moduan egon beharko da.

8.8. Zeanuriko udalagaz zorrik ez izatearen ziurtagiria.

#### **9. artikulua.— *Lege hausteak***

9.1. artikulua.— *Hutsegite arintzat hartuko dira*

Araudi honetan, hutsegite larri edo oso larri legez ezartzen ez direnak, eta Zeanuriko udalak egindako errekerimenduak baimena ematerakoan edo beranduago ez betetzea.

**9.2. artikulua.** — *Hutsegite larritzat hartuko dira*

- a) Ezarritako ordutegitik kanpo instalazioa zabaltzea.
- c) Udalaren ikuskaketa edo kontrola galeraztea edo eragozpenak jartzea.
- d) Hutsegite ari bi egitea.

**Artikulua 9.3.** — *Hutsegite oso larritzat hartuko dira*

- a) Udal lizentzia barik instalazioa zabaltzea.
- b) Kokatzeko gunerik ez errespetatzea edo instalazioa jarri edo kentzeko mugaegunak ez errespetatzea.
- c) Beirazko ontzietan edariak ematea.
- d) Ondasun publikoei edo zerbitzuei kalte larriak eragitea.
- e) Aurrikusitako edo baimendutako ihardueretatik kanpoko erabilera ematea instalazioari.
- f) Hutsegite larri bi egitea.
- g) Herritarren osasuna arrisku larrian jarri dezaketen osasun neurriak haustea.
- h) Pertsonen duintasunaren kontrako kartelak edota sinboloak erabiltzea,terrorismoa goraltzen dutenak eta, ondorioz, elkarbizitza edo jai-ekitaldien normaltasuna arriskuan jarri dezaketenek.

**10. artikulua.** — *Zigorrak*

10.1. Aurreko puntuan zehaztutako lege hausteei dagokien zigorrak Alkatetzak ezarriko du, horretarako izendatuko instruktoarek aurretiaz proposamena egin ondoren, Legearen arabera eta interesatuari audientzia emanez.

10.2. Hutsegite arinei dagokien zigorra,fiantzaren %50 galtzea izango da.

10.3. Fiantzaren %100 a galtzea ekarriko du hutsegite larriaren zigorra jartzeak.

10.4. Hutsegite oso larriaren zigorra jarri ezker hurrengokoa dakar:

Fiantza osoa galtzea,lizentzia edo baimena galtzea eta 3 urtetan zehar txozna jartzeko debekua.

10.5. Halan ikusten bada, Udalak beste erakunde batzuen aurrean tramitatu ditzake lege haustea.

Zigorrek alde batera utzita,Udalak berak utzitako eta itzuli ez diren, edo kaltetuta itzuli diren materialen diru kopura kendu dezake fiantzatik.

Berdin gertatuko litzateke Udalak ordaindutako gastuekatz edo/eta izandako gastu kopuruarekin instalazioa dala eta, edo kalteak direla eta beste ordainsariekaz, derrigorrezko bidera joan beharra balego ere.

10.6. Eskatutako baldintzak ez betetzeak edo ezarritako neurri sanitarioak ez hartzeak arrisku larria eragiten dutela uste izanez gero, alde baterako eta kautelaz, akatsak zuzendu arte, instalazioa izteko eskubidea gordetzen du Udalak egokiak liratekeen zigorrak jartzearen kalte barik.

**11. artikulua**

Jai egun edo ekintza bereziren baten ospakizunak, hauteskunde kanpainagaz bat egiten badau, jaiak lehentasuna izango dau, eta data horretan ezin izango da, jaialdiaren esparruan, hauteskunde kanpaina burutzeko inongo instalaziorik jarri edo dagozanak horretarako erabilui.

**12. artikulua.** — *Udal lokalen erabilera*

Honen bidez Kultur Etxearen lokal handiaren erabilera arautzen da.

Salbuezpenez beste lokal bat ere erabili ahal izango da.



Era egonkor baten elkarteei ez utzitako lokalen erabilera, hurrengoko irizpideak kontuan izanda egingo da:

- Lokalaren erabilera idatziz eskatu beharko da, zertarako azalduz, udaletxeko erregistroan, ekintza ospatu baino 7 egun lehenago gitxienez, eta 15 egun gehienez.
- Lokalaren erabilera Zeanuriko herritarren probetxurako izan daitekeen ekintza baterako izango da.
- Ekintza garatuko den egunean, arduradun batek giltza eskatuko dau udalean 14.00 orduetatik aurrera eta amaitzean udaleko postontzian itziko dau, egunean ekinza amaitu eta gero.

Ezin izango da talde bateri itzitako gitza beste bateri emon udalaren baimen barik.

- Egun bererako bi eskari egongo balira, lehentasuna lokala lehenengo eskatzen duenak izango du.
- Ezin izango dira udal lokalak eskatu erabilera politikoa daben bileretarako, urtean 3 aldiz baino gehiagotan, astelehenetik ostiralera diranean.

### **13. artikulua.— *Lege haustek***

Hutsegite arinak araudi honetan, hutsegite larri edo oso larri legez ezartzen ez direnak izango dira.

Hutsegite larritzat hartuko dira:

- Lokala baimenduta ez dauzen helburuetarako erabiltzea.
- Lokalara sartzeko ematen den giltza, araudi honetan ezarrita dagoen erara ez erabiltzea.

Hutsegite oso larritzat hartuko da, hutsegite larri bi egitea.

### **14. artikulua.— *Zigorrak***

14.1. Aurreko puntuan zehaztutako lege hausteei dagokien zigorra Alkatezak ezarriko du, horretarako izendatuko instruktoareak aurretiaz proposamena egin ondoren, Legearen arabera eta interesatuari audientzia emanez.

14.2. Hutsegite arinagatik zigorra 3 hilabete gehienez lokala ez erabiltzeko debekua izango da.

14.3. Hutsegite larriagatik zigorra 6 hilabete gehienez lokala ez erabiltzeko debekua izango da.

14.4. Hutsegite oso larriengatik zigorra lokala urte bi gehienez ez erabiltzea izango da.

### **15. artikulua.— *Lurzoru publikoaren erabileran egindako Lege haustek***

*Hutsegite arintzat hartuko dira*

- Espazio publikoa erabiltzeko baimenik ez eskatzea eta araudi honetan, hutsegite larri edo oso larri legez ezartzen ez diren arau haustek baita.

*Hutsegite larritzat hartuko dira*

- Espazio publikoa erabiltzeko baimenik ez eskatzea jokatzeko era hori errepikatuz, 2 aldiz edo gehiagotan.
- Baimena eskatutakorako ez erabiltzea, beste ekintza baterako baino.

*Hutsegite oso larritzat hartuko da*

- Hutsegite larri bi egitea.

**16. artikulua.—Zigorrak**

Hartu ahal diren neurri zuzentzaileak gorabehera, ordenantza honetako arau haustek isun bidez zigortuko dira, honako eskala hau aintzat hartuta:

- a) Hutsegite-arina: 200-750 euroko zigorra.
- b) Hutsegite-larria: 751-1.500 euroko zigorra.
- c) Hutsegite oso larria: 1.501-3.000 euroko zigorra.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunean sartuko da indarrean eta horrela iraungo dau, Udalak hori aldatu edo indargabetu arte.